

## Irakurle taldeentzako gida.

**Francis (pertsonaia nagusia):** moda oso gogoko duen nerabea, bere amarekin bizi dena.

**Jessica:** hildako nerabe baten mamua, nola zendu zen gogoratzen ez duena.

**Andi:** neska indartsu eta sendoa, ikaskideekin izandako liskarreetatik eskolatik bota dutena.

**Roland:** bere loditasuna dela-eta, eskola-jazarpena sufritu duen nerabea.

**Quentin:** Francisi bullying egiten dion mutikoa.

**Grace:** Francisen ama; alarguna eta buztinlaria.

### Gai gakoak:

- Adiskidetasuna
- Desberdintasuna
- Osasun mentala
- Bullyingna
- Suizidioa

### Talde eztabaidarako galderak:

- *Bazuen nahikoa arazo hildakoak ikus zitzakeela ere esan gabe.* (12. or.)  
Zer nolako arazoak dauzka Francisek? Nola laguntzen dio Jessicak horiei aurre egiten?
- *Zurtuta zeukan bakarra zer egin ez jakitea zen.* (21. or.)  
Zer gaitasun berezi dauzka Jessicak mamua denetik? Zertan eman du denbora hil zenez geroztik? Zein uste duzu dela Jessicari dagokion zeregina?
- Zergatik hasi zen Quentin Francisi bullying egiten? Nola erreakzionatzen du Francisek jazarpen horren aurrean? Zer egingo zenuke zuk bere egoeran?

- Andik honakoa aitortzen dio Francis: *Zu bezalakoek inbidia ematen didazue*, eta Francisek hauxe erantzuten: *zu bezalakoek ere inbidia eman didazue beti.* (70. or.)  
Zergatik uste duzu diotela inbidia elkarri?
- Zergatik sentitzen dira Francis, Andi eta Roland gainerakoengandik aparte? Baliteke honako hauei buruzko gogoetak laguntzea:
- Zer da besteengandik desberdin sentiarazten dituen?
- Nola bizi dute hori?
- Nola egiten diote aurre?
- Zer deskubritzen du Rolandek Jessicaren heriotzari buruz? Zer eragiten du horrek Jessicarengan?
- *Lorna saltatzera zihoan.* (149. or.)  
Zergatik egin nahi du Lornak bere buruaz beste? Nola laguntzen dute Jessicak eta Francisek hori saihesten?
- *Zaila baino zailagoa egiten zitzaiona Jessica gabe bizitzea zen. Andik eta Rolandek ere mamuaren hutsunea sentitzen zuten, baina dezentez gogorragoa zen Francisentzat.* (170. or.)  
Noraino uste duzu aldatzen duela Francisen bizitza Jessicaren adiskidetasunak?

## JARDUERA

Jessicaren itzala liburuaren booktrailerra prestatzea; hau da, liburua iragartzeko ez ezik, balizko irakurleengan liburua hartzeko eta irakurtzeko grina pizteko balioko duen bideoa egitea. Horretarako, beste booktrailer batzuk azter ditzakezue adibide gisa, irudiak, soinuak, testua edota off ahotsa nola txertatu erabaki baino lehen. Booktrailer batzuetan, liburuaren eszenen dramatizazioa egiten da, eta beste batzuetan, berriz, off ahotsa eta irudiak baliatu ohi dira obraren doinua eta argumentua transmititzeko. Bineten sekuentziazio bat presta dezakezue, eta marraztu, baldin eta ordenagailurik ez

baduzue. Egin ezazue gogoeta txiki bat liburuaren alderdi hauei buruz eta horiek booktrailerrean antolatzeko moduari buruz:

**generoa · argumentua · pertsonaiak · kokapena · giroa**

Bila ezazu informazio gehiago honako honi buruz: *Bakoitzak estilo jakin bat irudikatzen du, ikusten? Neska hegazkinlaria, punkia, grungea...* (20. or.)

Francis txundituta dago modarekin. Bila ezazu informazio gehiago liburuan aipatzen diren modako diseinatzaileei eta estiloei buruz. Dokumentazio hori erabil dezakezue Francisentzat inspirazio liburu bat sortzeko, bere diseinuen ideiak gorde ditzan.